

Netflixeko euskarazko azpidatzen segmentazioa eta hizkuntza-kalitatea

JOSU BARAMBONES

(UPV/EHU)

Sarrera

Teknologiak gure egungo bizitzaren parte dira. Teknologiaz baliatzen gara, baina, aldi berean, teknologia gutaz baliatzen da. Agustin-Lacruzek dioen moduan (2021, 1), «pantailak epidermis sozial berri bat bihurtu dira, subjektu bakoitzaren mugak eta harremanen lurraldea definitzen dituen bigarren azal bat». Pantailen zurrunbiloaren erdian harrapatuta bizi gara, eta, horren ondorioz, pantailek gure bizitzaren arlo guztietan dute eragina, eta bereziki gure aisialdian.

Ikus-entzunezko sektorearen kasuan, digitalizazioa mundu osoan ezartzea eta zabaltzea erabakigarria izan da eskariaren araberako bideo-zerbitzuak garatzeko (*Video on Demand*, ingelesez, eta, hemendik aurrera, VOD). Telebistak eta Internetek bat egitearen ondorioz, ikus-entzunezko produktuak ikusteko eredu berri bat sortu da, interaktiboagoa eta pertsonalizatuagoa.

Milurteko honen hasieran, herritar askoren bizimodua, eta, bereziki, herritar horien aisialdia, ez da ulertzen VOD plataformarik gabe. Izan ere, Espainiako Kultura Ministerioaren *Encuesta de hábitos culturales de España 2021-22* izeneko ikerlanaren arabera (Kultura eta Kirol Ministerioa, 2022, 59), aztertutako biztanleriaren hamarretik seik, hots, % 59,4k, eduki kulturalak eskaintzen dituzten plataforma digitalen harpidetzak ditu etxean. Filmen edo telesailen harpidetzak % 52,8k ditu, eta telebista-kanalen plataformena % 26,3k. Euskadiren kasuan, kopurua % 34,5eraino jaisten da; eta Nafarroan, berriz, % 57,1era igotzen da (*ibid.*, 380 or.). Plataforma horietako bezeroen % 53 asteko egun guztietan sartzen da plataformaren batean, eta eguneko batez besteko kontsumo-denbora ordubete eta hiru ordu bitartekoa izaten da. Hala ere, plataformek eskainitako produktu horiek ikusteko denbora oraindik ere telebista

konbentzionalaren datuen azpitik dago, telebista konbentzionalaren kasuan batez beste ia lau ordu (220 minutu) kontsumitzen baititu pertsona bakoitzak.

Ildo beretik, UEMA Udaleri Euskaldunen Mankomunitateak gazteen ikus-entzunezkoen kontsumoari buruz egin berri duen ikerketak ere egiaztatzen ditu datu horiek (UEMA, 2022). Gune soziolinguistiko euskaldunenetan, 11.571 inkesta egin zituzten 9 eta 17 urte bitarteko herritarren ikus-entzunezkoen kontsumoa ezagutzearren, eta, UEMAko herrietako gazteen artean, VOD plataformei dagokienez, Netflix da nagusi: hamarretik seik aitortzen du plataforma hori erabiltzen duela, hots, gazteen % 62k ikusten du. Amazon Prime Videoren erabilera, ordea, % 33koa da, eta Movistar Plusena % 20koa. Gainerako plataformak % 10eko langatik behera daude: Disney+ % 12k ikusten du, HBO % 7,9k eta Filmin % 1,1ek.

Euskararen kasuan, kontsumo horrek badu eraginik hizkuntzaren erabileran eta hiztunen gaitasunean. Horregatik, funtsezkoa da euskararen presentzia sustatzea plataforma horietan, euskararen kalitatea bermatzearekin batera sustatu ere. Bereziki kontuan hartzen badugu ikasle gehienek VOD plataformak ikusten dituztela eta telebista apenas ikusten dutela. Hortaz, plataforma horietako edukiak euskaraz ere helarazi behar zaizkie euskaldunei, azpidatzita zein bikoiztuta, euskaldunen eskubideak babesteko eta hemengo ikus-entzunezko industria bultzatzeko.

Plataforma horien erabateko arrakasta eta zabalkundea aintzat harturik, ikerlan honen xede nagusia VOD plataforma batean –Netflixen, hain justu ere– pantailaratzen diren euskarazko azpidatzen hizkuntza-kalitatea aztertzea da. Aldi berean, euskarazko azpidatzen segmentazioari ere erreparatuko diot, segmentazioa modu egokian egitea noraezekoa baita azpidatziak erraz eta eroso irakurtzeko.

VOD plataformak

Espainian, ordainpeko telebista 2014. urtean sortu zen, hedabideetako enpresak zerbitzu hori eskaintzen hastearrekin batera. Urtebete beranduago, 2015eko urrian, Netflix¹ ere hasi zen bere zerbitzuak eskaintzen. Geroxeago etorri ziren HBO (2016) eta Amazon Prime Video (2017). Gaur egun, hauek dira Espainian ikusgai dauden VOD plataforma nagusiak: Netflix, Amazon Prime Video, HBO, Movistar+Lite, Filmin eta Disney+.

Netflix 1997an sortu zen, AEBn, 900 titulurekin, posta bidez DVDak alokatzeko harpidetza-zerbitzu gisa, etxetik egindako erosketaren erosotasuna eta denda digital baten eraginkortasuna uztartzeko asmoz. Espainian, 2022an, 9,6 milioi erabiltzailek ordaindu zuten Netflixek eskainitako zerbitzuengatik (*Barlovento Comunicación*, 46). Horrela, Estatu Batuetako plataforma hori Espainian harpidedun gehien dituen lehen ordainketa-operadorea da. Atzetik jarraitzen

1. Netflix bi izenez osaturiko laburdura bat da: *net*, hots, «sarea», eta *flix*, *flicksetik*, hau da, «filmak», hizkera kolokialean.

diote Amazon Prime Videok, 6,6 milioirekin, eta Movistar+ Litek, 3,713 milioirekin. HBOk 3,6 milioi ditu, Disney+-ek 3,200 milioi eta Filminek 400 mila baino ez.

Datuoi erreparaturik, argi dago Netflixek lidergoari eusten jakin duela. Arrakasta horren arrazoiak askotarikoak dira, baina nik bi hauek azpimarratu nahi ditut: batetik, eskaintzen duen katalogoaren zabala, bereziki jatorrizko edukiena, bai eta ikusleekiko leialtasuna eta etengabeko berrikuntzarako estrategia ere (esaterako, *Black Mirror: Bandersnatch* filmean, ikusleek berek hautatu ahal izan zituzten bukaerak).

VOD plataformen gorakada azkenaldiko iraultzarik handienetako bat izan da ikus-entzunezko itzulpenaren sektorean. Lan-eskaintzak izugarri egin du gora, eta esango nuke horrekin batera ikus-entzunezko itzulpenak urrezko aro halako bat bizi izan duela. Espainiako estatuan, plataforma horietako lauk ematen diete itzultzaileei lanaren zatirik handiena: Netflix, Amazon Prime Video, HBO eta Movistar+Lite.

Duela gutxi arte, ordea, plataforma horien euskarazko eskaintza hutsaren hurrengoa zen ia. Guztiarekin ere, Espainiako ikus-entzunezko lege berriaren bosgarren xedapen gehigarriaren arabera (BOE, 2022), telebistako ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuetan hizkuntza-aniztasuna eta autonomia-erkidegoetako hizkuntza ofizialen presentzia sustatzearen, zerbitzuaren emaelek bermatuko dute autonomia-erkidegoetako hizkuntza ofizialetan bikoiztutako edo azpititulatutako ikus-entzunezko edukiak katalogoetan sartzea. Hortaz, lege berriak produkzio-igoera nabari-nabaria ekarri du euskarazko bikoizketaren eta azpidazketaren arlor, bereziki azpidazketari dagokionez, nahiz eta oraindik euskarazko katalogoa oso txikia den.

Plataforma horiek eskaintzen dituzten euskarazko edukiei dagokienez, *Zer Non Ikusi* webgunean ikusgai dago plataforma digitaletan dauden euskarazko edukien katalogoa. 2023ko urtarrilaren bukaeran² egin nuen kontsultaren arabera, hauek dira plataformetan dauden euskarazko audioak (jatorrizkoak nahiz bikoiztutakoak) eta azpidazketak:

VOD PLATAFORMA	Euskarazko audioa	Euskaraz azpidatzita
Netflix	15	83
Amazon Prime Video	27	68
HBO Max	4	0
Filmin	83	28
Disney+	0	0

2. Maiatzaren bukaeran, *Zer Non Ikusi* webgunean, 17 euskarazko audio eta 106 eduki zeuden Netflixen euskarazko azpidatziekin. Gaur egun, Netflixek 6.700 titulu baino gehiago ditu eskuragarri Espainian, eta haietatik 3.500 baino gehiago filmak dira. Beraz, euskaraz badago zer bikoizturik eta zer azpidatzirik.

Metodologia

Ikerlan honek izaera deskriptiboa du oroz gain, eta al bait objektiboena izan nahi du. Halere, datuok ondorio batzuk ateratzeko hizpidea emango didate, datuen hoztasunetik eta zurruntasunetik harago joatearren. Izan ere, nire helburu nagusia hau baino ez da: aztertu ditudan lau telesailen eta filmaren itzultzaileen lanaren kalitatea aztertzea.

Metodologia diseinatzeko garaian, irizpide hauek ezarri ditut: VOD plataforma guztien artean, Netflix plataformako edukiak aztertzea, gehien ikusten den plataforma denez gero, eta, beraz, adierazgarritasun-mailarik altuena duen plataforma delako. Artikuluaren luze-laburra kontuan hartuta, lau telesailetak bina atal eta film bat hautatzearekin nahikoa nuen (bost itzultzailek azpidatziak dira). Hautaturiko testuak pertsona batek baino gehiagok azpidatziak izatea interesatzen zitzaidan, modu horretara jakin baitaiteke ea hautemandako fenomenoak ohikoak diren Netflixerako azpidatzen duten euskal itzultzaileen artean. Horiek horrela, ikerlan honek aukera emango dit errepikatzen diren eta itzultzaile bati baino gehiagori egotzi ahal zaizkien itzulpen-jokaerak ezagutzeko. Azken finean, zenbat eta itzultzaile (eta testu) gehiago arakatu, orduan eta handiagoa izango da fenomeno horien ordezkagarritasun maila. Guztira, bada, zortzi atal, telesail bakoitzeko bi, eta film luze bat aztertu ditut. Guztien iraupena 522 minutukoa, hau da, zortzi ordu eta 42 minutu.

Azkenik, esan nahi nuke, hizkuntzalaria ez naizen aldetik, fenomenoak sailkatzeko orduan eta haietako bakoitzaren azalpena emateko garaian ez dudala askorik luzatu nahi izan azalpen gramatikalak ematen. Bakar-bakarrik oinarritzkoenak begitandu zaizkidanak idatzi ditut, baina gramatikaren leizean arakatu barik. Gramatika arakatu nahi duenak badauka gurean non miatu.

Filmografia

Hona aztertu ditudan lau telesailen eta filmaren zertzelada nagusiak eta bakoitzaren fitxa teknikoa:

Anatomy of a Scandal

Sophie Whitehousek, James Whitehouse parlamentari britainiarraren emazteak, jakin du senarrak amodiozko afera bat izan duela bere laguntzaile Olivia Lyttonekin. Albistearen argitara eman da, eta berri horrek senar-emazteen bizitza hankaz gora jarriko du. Gauzak areago okertzeko, Olivia Lyttonek James Whitehousek bortxatu izana salatzen eta auzitara eramango du.

Jatorrizko izenburua	<i>Anatomy of a Scandal</i>
Estreinaldia	2022
Herrialdea	Erresuma Batua

Sorburu-hizkuntza	Ingelesa
Zuzendaria	S. J. Clarkson
Gidoia	Melissa James Gibson eta David E. Kelley, Sara Vaughanen liburuan oinarrituta
Generoa	Thriller psikologikoa
Banatzailea	Netflix
Lehen atalaren iraupena	48 min
Bigarren atalaren iraupena	45 min

Tauletan, honela agertuko dira telesail honen erreferentziak:

- Lehen atala: [SCD_1]
- Bigarren atala: [SCD_2]

Dahmer – Monster: The Jeffrey Dahmer Story

Telesail hau Jeffrey Dahmerren bizitzari buruzkoa da, eta kontatzen du nola bihurtu zen Estatu Batuetako serieko hiltzaile ospetsuenetako bat. Poliziaren gaitasunik ezari esker, Milwaukeeeko hiltzaile honek hainbat hilketa burutu zituen, 1978 eta 1991 bitartean.

Jatorrizko izenburua	<i>Dahmer – Monster: The Jeffrey Dahmer Story</i>
Estreinaldia	2021
Herrialdea	Estatu Batuak
Sorburu-hizkuntza	Ingelesa
Zuzendaria	Clement Virgo
Gidoia	Ryan Murphy eta Ian Brennan
Generoa	Drama kriminala
Banatzailea	Netflix
Lehen atala Iraupena	<i>Bad Meat</i> 49 min
Bigarren atala Iraupena	<i>Please Don't Go</i> 52 min

Tauletan, honela agertuko dira telesail honen erreferentziak:

- Lehen atala: [DAH_1]
- Bigarren atala: [DAH_2]

Kaleidoscope

Eskarmentu handiko lapur batek eta haren taldeak inoizko lapurretarik handiena prestatu dute, 7.000 milioi dolar irabazteko. Baina traizioak, zikoizkeriak eta diru-goseak arriskuan jarriko dute tentu handiz prestatu duten plana.

Jatorrizko izenburua	<i>Kaleidoscope</i>
Estreinaldia	2023
Herrialdea	Estatu Batuak
Sorburu-hizkuntza	Ingelesa
Zuzendaria	Eric Garcia
Gidoia	Eric Garcia
Generoa	Thrillerra
Banatzaila	Netflix
Lehen atala Iraupena	<i>Green</i> 45 min
Bigarren atala Iraupena	<i>Yellow</i> 48 min

Tauletan, honela agertuko dira telesail honen erreferentziak:

- Lehen atala: [KAL_1]
- Bigarren atala: [KAL_2]

The Pale Blue Eye

1830ean eta Estatu Batuetako West Point akademia militarrean girotutako istorioa. Augustus Landor detektibearen laguntza eskatu dute West Pointen gertatu diren hilketak misterioitsu baztuk argitzeko. Landorri akademiako kadete gazte batek lagunduko dio: Edgar Allan Poek.

Jatorrizko izenburua	<i>The Pale Blue Eye</i>
Estreinaldia	2022
Herrialdea	Estatu Batuak
Sorburu-hizkuntza	Ingelesa
Zuzendaria	Scott Cooper
Gidoia	Scott Cooper
Generoa	Misteriozko thrillerra
Banatzaila	Netflix
Iraupena	128 min

Tauletan, honela agertuko da film honen erreferentzia: [PBE]

Wednesday

Telesail hau naturaz gaindiko misteriozko komedia satirikoa da, Wednesday Addams eta Nevermore ikastetxea ardatz dituen. Nevermore ikastetxean, Wednesday bere botere psikikoak menderatzen eta gurasoak nahasi zituen misterioa argitzen saiatuko da. Aldi berean, herrian hainbat hilketa misteriotsu eta odoltsu gertatuko dira.

Jatorrizko izenburua	<i>Wednesday</i>
Estreinaldia	2022
Herrialdea	Estatu Batuak
Sorburu-hizkuntza	Ingelesa
Zuzendaria	Tim Burton
Gidoia	Alfred Gough eta Miles Millar
Generoa	Fantasia eta misteriozko komedia
Banatzaila	Netflix
Lehen atala Iraupena	<i>Wednesday's child is full of woe</i> 59 min
Bigarren atala Iraupena	<i>Woe is the loneliest number</i> 48 min

Tauletan, honela agertuko dira telesail honen erreferentziak:

- Lehen atala: [WED_1]
- Bigarren atala: [WED_2]

Azpidazteko konbentzioak

Barambonesek eta Zabalondok (2006, 144) dioten moduan, azpidazteko konbentzioei dago-kienez ez dago lege zorrotzik, eta enpresa batetik bestera zertxobait aldatzen dira. Azpidazteko arau eta konbentzioak horixe dira, konbentzio.

Azpidatzen formatua eta segmentazioa

Azpidazketa arruntean, azpidatzi bat lerro batekoa edo, gehienez ere, bikoa izaten da. Normalean, pantailaren behealdean eta erdian jarrita kokatzen dira, salbu eta pantailan beste testurik agertzen denean. Orduan, pantailaren goiko aldean paratu ohi dira, beheko aldean edo erdialdean agertzen den testua ez tapatzearren.

Bi lerroko azpidatzen kasuan, eta luzera desberdinekoak direnean, beti egokiagoa da goiko azpidatzia behekoa baino laburragoa izatea. Bi arrazoiengatik: lehenik, testuak gutxiago zikinduko duelako pantaila, eta, bigarrenik, begiak erosoago irakurtzen dituelako horrela antolatutako azpidatziak. Hona segmentazio egokiaren adibide pare bat:

Sorburu-testua: DAH_1 <i>I forgot. My, uh, my tropical fish died.</i>	Itzulpena Ahaztuta nuen nire arrain tropikala hil dela esatea.
Sorburu-testua: SCD_1 <i>I'd love to, but I got pulled into something.</i>	Itzulpena Gustatuko litzaidake baina lan berri bat daukat.

Aztertu ditudan testuetan, ordea, ez da beti konbentzio hori errespetatzen, eta, gehienetan, lehen lerroa bigarrena baino luzeago izaten da. Sarritan, esan beharra dago, euskararen egituragatik beragatik zaila izaten da konbentzio hori errespetatzea, baina batzuetan nahikoa da esaldien ordena aldatzea edo osagairen bat birformulatzea, konbentzioari men egiteko. Honatx:

Itzulpena: KAL_1 Judyk zure azpikerietaz hitz egin dit. Ulertzen dut	Segmentazio egokia Ulertzen dut. Judyk zure azpikeriez hitz egin dit.
Itzulpena: WED_1 Ez naiz ez maiteminduko, ez etxeoandrea izango eta ez dut familiarik izango.	Segmentazio egokia Ez naiz maiteminduko, ez etxeoandrea edo ama izango.
Itzulpena: SCD_1 Zuzenketa honi egindako eragozpenei aurka egin behar diet.	Segmentazio egokia Aurka egin behar diet zuzenketa honi egindako eragozpenei.
Itzulpena: DAH_1 Eta zatiketak dokumentatzen zituzten argazkiak aurkitu dira ere.	Segmentazio egokia Eta argazkiak ere aurkitu dira, zatiketak dokumentatzen dituztenak.
Itzulpena: PBE Gobernadoreak New York Hiriko aguazilen artean mito bat zarela dio.	Segmentazio egokia Gobernadoreak dio mito bat zarela New York hiriko aguazilen artean.

Segmentazioa dela eta, mezuaren irakurgarritasuna eta ulermena errazte aldera, sintagma baten erdian lerro-mozketak egitea saihestu beharko litzateke. Azken finean, testua zatikatzen dugunean, unitate gramatikalak errespetatu behar dira. Segmentazioa informazio-unitate logiko eta osoak aintzat harturik egin behar da. Ahal dela, bada, irizpide hau erabiliko dugu beti: ideia bat, azpidatzi bat. Horrela egitera, hau da, azpidatziak zentzuzko unitate logikoetan segmentatzen baditugu, ikusleek errazago eta eraginkorrago prozesatuko dituzte azpitoluak.

Horiek horrela, arau hauek bete behar dira (Barambones eta Zabalondo, 2006, 149-150):

- Galdegaia eta aditza lerro berean jarri behar dira.
- Aditz sintagma osoa lerro berean ematea komeni da.
- Izen sintagma ere lerro berean eman behar da, ahal dela.

- d. *eta* eta *baina* lerroz aldatzeko baliatu.
 e. *ez* eta *ere* partikulak, eragiten dioten atalaren lerro berean.

Hona hemen goiko konbentzioak aintzat hartzen ez dituzten adibide batzuk. Belztuta ageri dira lerro berean joan behar luketen sintagmak:

Sorburu-testua: DAH_1 <i>I'm telling you. Black people are disappearing all over the city.</i>	Segmentazio desegokia Benetan diozuet [sic]. Pertsona beltz ugari desagertzen ari dira. [Galdegaiia eta aditza lerro berean jarri behar.]
Sorburu-testua: PBE <i>So I take it that you've never done what so many of... us do.</i>	Segmentazio desegokia Beraz, ez duzu gutako askok egiten duguna egiten.
Sorburu-testua: PBE <i>You do enjoy talking about God and death, don't you?</i>	Segmentazio desegokia Jainkoari eta heriotzari buruz hitz egitea gogoko duzu, ezta?
Sorburu-testua: WED_2 <i>I have to get back to the woods, but Weems has been watching me like a vulture circling a carcass.</i>	Segmentazio desegokia Basora itzuli behar dut, baina Weemsek saia balitz bezala behatzen nau [sic].
Sorburu-testua: KAL_1 <i>Nah. No, The Triplets are a different breed of criminal.</i>	Segmentazio desegokia Ez. Hirukiak beste mota bateko kriminalak dira.
Sorburu-testua: SCD_1 <i>Which usually means a debate about noise pollution, but...</i>	Segmentazio desegokia Normalean, kutsaduraren inguruko kontu bat izaten da.

Hizkuntza-kalitatea

Atal honetan, azpidatzieta hauteman dudan hizkuntza-kalitateaz hitz egingo dut. Hizkuntza-kalitateak zerikusi zuzena du erabileremu bakoitzean egokia den hizkuntza-eredua erabiltzearekin. Azpidazketa idaztea den heinean, testuek erabilera estandar zaindua erabili behar dute, eta gramatikaltasuna errespetatu. Gramatika-akatsak, bada, baztertuak daude eremu honetatik. Orobat, batek espero dezake azpidatzitako testuek Euskaltzaindiak batasunerako emandako arauak beteko dituztela. Estiloarekin lotuago dauden kontuak aztertzea, ordea, ikerlan honetatik kanpo geratu dira.

Akats asko eta era askotarikoak topatu ditut aztertu ditudan telesailetan eta filmean. Horiek guztiak sailkatu, eta, ikerlanaren luze-laburra kontuan hartuta, multzo bakoitzeko adibide batzuk baino ez ditut erakutsiko.

Ortografia

Ortografiarekin lotutako akatsak dira begiak lehenik hautematen dituenak, baina, aldi berean, konpontzen errazenak dira, nahikoa izaten baita beste begi batzuek gure testuari begiratu bat ematea. Ez bide dirudi Netflixen kasuan beste begi horiek funtzionatu dutenik, ziur asko euskarazko testuek ez dutelako izan zuzentzailerik. Belztuta eman ditut ortografia-akatsak.

Sorburu-testua: DAH_1	Itzulpena
<i>I'm telling you. Black people are disappearing all over the city.</i>	*Benetan diozuet . Pertsona beltz ugari desagertzen ari dira. [diotsuet]
Sorburu-testua: DAH_2	Itzulpena
<i>–[medic 1] Step back. –[medic 2] Gonna get her to the hospital.</i>	– Atzera. –*Hospitalera daramatzagu. [H-az gain, «daramagu» behar du, bere buruaz beste egiten saiatu den emakume bat daramate-lako ospitalera medikuek.]
Sorburu-testua: DAH_2	Itzulpena
<i>so he'll keep breathing, his heart'll keep breathing,</i>	*igelak arnasten jarrai zezaken . [zezakeen]
Sorburu-testua: DAH_2	Itzulpena
<i>You got arrested for it, dude.</i>	*Atxilotu zinduten , motel. [zintuzten]
Sorburu-testua: KAL_1	Itzulpena
<i>All fingers point right back at me.</i>	* Hatzamar guztiak seinalatuko naute. [Atzamar]
Sorburu-testua: KAL_1	Itzulpena
<i>I get busted trying to self-parole, that's another dime at least.</i>	*Harrapatzen banaute, gehiago jauziko zaizkit . [Jatorrizkoak «jausi» esan nahi du, ez «salto egin».]
Sorburu-testua: PBE	Itzulpena
<i>Good. My note reached you.</i>	Ondo. *Nire oharra iritzi zaizu. [«iritzi»]

Sorburu-testua: WED_2

*Maybe you two
are more alike than you think.*

Itzulpena

*Agian zuk uste
baino **antz** handiagoa duzue.
[antz]

Ortotipografia

- Zenbaki kardinalen erabilera

Eguneroko erabileran, ohikoa izaten da milatik gorako zenbakietan zifrak hiruak multzokatu eta puntuz bereiztea. Halere, nazioarteko arauk esaten dute punturik ez erabiltzeko eta horren ordeztu hutsune bat uzteko, bereziki testu jasoetan. Bestalde, Netflixeko estilo-gidaren arabera, bost digituko zenbakiak hutsune bat utzita idatzi behar dira, hots: 50 000. Normalean, jarduera profesionaletan, bezeroari egin behar zaio kasu, eta hala jokatu dute itzultzaileek:

Sorburu-testua: SCD_2

*I love the clear goal,
and I quit love the number 10,000.*

Itzulpena

Gustatzen zait
Egunean **10 000** pausoen erronka hori.

Sorburu-testua: KAL_2

If we go bare bones,
I can maybe get the list to 300K?

Itzulpena

Oinarrian geratzen bagara,
300 000 dolarretan utzi genezake.

- Zenbaki ordinalak

Zenbaki ordinalak puntuarekin idazten badira, puntua baino ez da erabili behar. Beraz, idazkera hau ez da zuzena:

Sorburu-testua: WED_1

VICTIM 1

Itzulpena

*1.GO BIKTIMA
[1. BIKTIMA]

- Orduak

Zifretan ematen direnean, konbentzioak esaten du minutuei singular-marka eranstean zaie-la. Kasu honetan, bigarren ordua gaizki idatzita dago:

Sorburu-testua: WED_1

—**1:00**
—**12:30**

Itzulpena

—o1:ooean
—***00:30**etan
[00:30ean]

Ergatiboa

Harrigarria da ikustea nola batzuetan aditz iragangaitzei ere –*egon* eta *etorri* aditzei, kasu bate-rako– ezartzen zaien ergatibo-marka, berez aditz iragankorren subjektuak eraman behar bai-tu. Eta are harrigarriagoa da egiaztatzea akats hori nola errepikatzen den aztertutako ikus-entzunezko produktu guztietan:

Sorburu-testua: WED_2	Itzulpena
<i>This story is about to take a dark turn</i>	*Istorio honek txarrera jotzear dago. [istorio hau]
Sorburu-testua: SCD_1	Itzulpena
<i>The married father of two also shared a room with stunning Olivia Lytton, 28, during the party conference.”</i>	*Bi haur dituen senar honek gela batean egon zen 28 urteko Olivia Lytton liluragarriarekin alderdiko biltzarra zen bitartean. [senar hau]
Sorburu-testua: DAH_1	Itzulpena
<i>Some neighbors here had complained of a stench for almost a year.</i>	*Bizilagun asko ia urtebetez kiratsaz kezkatzen egon ziren. [Bizilagun asko]
Sorburu-testua: DAH_1	Itzulpena
<i>I thought someone might have tried to murder him.</i>	*norbaitek hura erailtzen saiatu dela pentsatu dut. [Norbaik]
Sorburu-testua: KAL_2	Itzulpena
<i>It kicked off during World War II when the Jews got out of Amsterdam.</i>	II. Mundu Gerran sortu zen, *judutarrek Amsterdamentik Hirugunera [sic] etorri zirenean. [judutarrak]
Sorburu-testua: PBE	Itzulpena
<i>Curfew not apply to you, Mr. Poe?</i>	*Kera-deiak ez dagokizu? [Kera-deia]

Beste aditz batzuk, aldiz, iragangaitzak zein iragankorrek izan daitezke, eta kasuan kasu hartuko dute kasu-marka bat edo beste bat. *Da* nahiz *du* aditz-erregimenak onartzen dituzten aditzen artean, *jarri* eta *fidatu* aditzak ditugu. Ondorengo kasu bietan *da* motako aditzak diren arren, ergatiboaren marka ezarri zaie:

Sorburu-testua: DAH_1

I guess us gay guys can get into that roughhousing frat boy stuff.

Itzulpena

*Gayek batzuetan basatiak bezala **jartzen gara**.
[Gayak]

Sorburu-testua: WED_1

The locals are a tad bit wary about Nevermore,

Itzulpena

*Herritarrek **ez dira** Inoiz Ez Gehiagoz fidatzen.
[Herritarrak]

Saiatu aditza ere, normalean, iragangaitza izaten da, salbu eta «saiakuntza egin» esanahia duenean. Beraz, beheko kasu honetan ez du ergatibo-markarik hartu behar:

Sorburu-testua: DAH_2

The frog's hands try to wipe the cotton ball away.

Itzulpena

*Igelaren eskuek kotoi bola baztertzen **saiatuko zirela**.
[Igelaren eskuak]

Gauza bera *borrokatu* aditzarekin, *da* sailekoa baita:

Sorburu-testua: KAL_1

Me and the floor had a disagreement.

Itzulpena

***Zoruak** eta biok borrokatu gara.
[Zorua eta biok]

Euskara hizkuntza ergatiboa da, eta hizkuntzalari guztien ustez ergatibotasuna da euskararen bereizgarri nagusia. Beraz, eta salbuespenak salbuespen, aditz iragankor bat dagoenean, subjektuak ergatiboaren marka morfologiko hori eramaten du, nahitaez eraman behar ere. Adibide hauetan, urrezko araua ez da errespetatzen:

Sorburu-testua: SCD_1

Uh, James Whitehouse, a Home Office minister and confidant of the prime minister, uh, conducted his affair with his parliamentary researcher in the Palace of Westminster.

Itzulpena

*James **Whitehouse**, barne-ministroa eta lehen ministroaren **laguna**, maite-kontu bat **izan zuen** bere parlamentu-ikertzailearekin Westminster Jauregian.
[James Whitehousek, barne ministroak]

Sorburu-testua: KAL_2

He thinks money and technology will protect him.

Itzulpena

***Dirua eta teknologia** babestuko dutela uste du.
[Diruak eta teknologiak]

Sorburu-testua: PBE	Itzulpena
<i>It seems only right that you should have it.</i>	*Egokia dirudit [sic] zuk edukitzea. [Egokia <i>dirudi</i> zuk edukitzeak.]
Sorburu-testua: WED_2	Itzulpena
<i>You know, telekinesis can mess with your head, you know. He's...</i>	*Telekinesia zora zaitzake. Bueno... [Telekinesiak]

Aditz-sistema okerrak

Asko dira aditz-erregimen okerrak erabiltzen dituzten esaldiak. Lehen multzoan sartu ditut nor-nork erregimeneko aditz-sistema erabili beharrean nor-nori-nork erregimena erabiltzen dutenak. Hona haietako batzuk:

Sorburu-testua: SCD_1	Itzulpena
<i>I would have had you over tonight, but Felicity decided to stay in town.</i>	*Etxera gonbidatuko nizuke baina Felicity hirian geratuko da gaur. [Etxera <i>gonbidatuko zintuzket</i>]
Sorburu-testua: SCD_1	Itzulpena
<i>it could start to make your loyalty look ill-advised.</i>	*Zure leialtasunak kaltetu diezazuke. [Zure leialtasunak kaltetu zaitzake.]
Sorburu-testua: SCD_2	Itzulpena
<i>Well, you're the one who encouraged me to take it.</i>	*Zu [sic] animatu zenidan onartzera. [Zuk <i>animatu ninduzun</i>]
Sorburu-testua: DH_2	Itzulpena
<i>Coyote couldn't get after him.</i>	*Ezin izan diote harrapatu. [Ezin izan <i>dute harrapatu.</i>]
Sorburu-testua: KAL_1	Itzulpena
<i>You beat on him, he's gonna be moaning about it all night.</i>	* Jotzen badiozu , negar egungo [sic] du gau osoa. [Jotzen <i>baduzu</i>]

Bestalde, badira nor-nori-nork aditz-sistema erabili beharrean nor-nork aditz-erregimenekoa erabiltzen dutenak:

Sorburu-testua: SCD_2	Itzulpena
<i>I'll support you.</i>	*Nik eutsiko zaitut. [Nik <i>eutsiko dizut</i> . Halere, ingelesezko esaldiak hau esan nahi du: <i>Nik lagunduko dizut.</i>]

Sorburu-testua: KAL_1 <i>You okay? Hey. Look at me.</i>	Itzulpena <i>Ondo zaude? Aizu, *begira nazazu.</i> [<i>begira iezaidazu</i>]
Sorburu-testua: WED_2 <i>I have to get back to the woods, but Weems has been watching me like a vulture circling a carcass.</i>	Itzulpena Basora itzuli behar dut, baina Weemsek saia balitz bezala *behatzen nau. [<i>behatzen dit</i>]

Orobat aurkitzen dira nor-nori motako aditz-sistema erabili ordeztu nor-nori-nork motakoak erabiltzen dituzten adibide bakan batzuk. Hona hemen haietako bat:

Sorburu-testua: WED_1 <i>Point is, you assaulted a boy, and showed no remorse for your actions.</i>	Itzulpena Mutil bati eraso zenion eta *ez zizun damutu. [<i>ez zaizu damutu</i>]
---	---

Aldatu aditzak bi aditz-erregimen onartzen ditu: *du* eta *da*. «Ideia» edota «iritzi» izenekin, biak onartzen ditu (*ideia aldatu dut, ideiaz aldatu naiz*), baina, instrumentala baliatzen badugu, orduan *da* aditz-erregimena erabili behar da:

Sorburu-testua: KAL_1 <i>You're gonna feel differently when it helps us disappear from here.</i>	Itzulpena *Ideiaz aldatuko duzu desagertzen laguntzen digunean. [<i>Ideiaz aldatzen bazara</i>]
--	--

Jolastu aditza nor sailekoa da, ez nor-nork sailekoa:

Sorburu-testua: KAL_2 <i>I've been playing with some fentanyl derivatives.</i>	Itzulpena *Fentanilaren deribatuekin jolastu dut. [<i>jolastu naiz</i>]
--	---

Iraganeko baldintza hipotetikoa erabili da beheko adibide honetan, alegiazko ahalera erabili beharrean:

Sorburu-testua: WED_1 — <i>I'm failing to see the problem here.</i> — <i>I could die alone.</i>	Itzulpena — Non dago arazoa? — *Bakarrik hil nintzatekeen. [<i>hil ninteke</i>]
--	--

Ari izan aditzak, salbuespenezko kasu bakan batzuetan izan ezik, hala nola eguraldiaz ari garenean, edo ekialdeko erabilera zenbaitetan, ez du nork sintagmarik onartzen. Aditz iragan-gaitza da, eta, beraz, subjektuak ez du ergatiboaren kasu-markarik hartzen.

Sorburu-testua: DAH_2	Itzulpena
<i>Police are questioning the suspected downtown.</i>	* Poliziak susmagarria galdekatzen ari da. [<i>Polizia</i>]
Sorburu-testua: KAL_1	Itzulpena
<i>I got guys in here who are expecting cards.</i>	* Hemengo tipoeak txartelak itxaroten ari dira. [<i>Hemengo tipoeak</i>]
Sorburu-testua: WED_1	Itzulpena
<i>Okay, I'm taking orders from a hand.</i>	Bale, * esku batek aginduak ematen ari zaizkit. [<i>esku bat</i>]

Komunztadura

Lehen adibide honetan, komunztadura egiteko orduan, izenak aintzat hartu beharrean, per-pausa hartu du kontuan itzultzaileak, oker hartu ere:

Sorburu-testua: KAL_1	Itzulpena
<i>Uh, you and your partners have specific needs, a diverse portfolio, best kept in a certain amount of shadow,</i>	Zure bazkideek eta zuk premia zehatz batzuk dituzue [...] eta horiek itzalean * mantentzea komeni zaizkizue. [<i>mantentzea komeni zaizue.</i>]

Oraingoan, ordea, lehen izen-sintagma plurala da eta bigarrena singularra; beraz, komunztadura pluralean egin behar dute:

Sorburu-testua: KAL_2	Itzulpena
<i>So this vault, you say there's biometrics, Uninterruptible power supplies.</i>	Ganbera korazatuan * sentsore biometrikoak eta energia-iturri jarraia dago? [<i>eta energia-iturri jarraia daude?</i>]

Beste kasu honetan, pertsona eta aditz-laguntzailea ez datoz bat:

Sorburu-testua: PBE

*He's certainly not to be corrupted
by the likes of you.*

Itzulpena

*Ziur zuk ez duzuela galbideratuko.
[zuk ez duzula galbideratuko]

eta juntagailuaren bidez egiten diren juntadurek aditza pluraleko komunztadura egitera behartzen dute, ez singularrekoa:

Sorburu-testua: WED_1

*I need a tri-wing screwdriver
and a four milimeter Allen wrench.*

Itzulpena

*Hiru puntako bihurkin bat
eta lau milimetroko
Allen giltza bat **behar dut**.
[*behar ditut*]

Partitiboa

Partitiboari dagokionez ere, erabilera okerrak daude azpidatziatan.

Sorburu-testua: SCD_2

*There wouldn't be any more
surprises from my past.*

Itzulpena

*Ez direla
nire iraganeko sorpresarik egongo.
[*ez dela*]

Sorburu-testua: DAH_1

*There ain't a lot of white queens
walking up in here with their blond hair.*

Itzulpena

*Ez **daude erregina ilehori askorik**
zulo honetan.
[*Ez dago*]

Sorburu-testua: DAH_2

*So hopefully
this isn't gonna spill everywhere.*

Itzulpena

*Zorte apur batekin
ez ditu zipiztinik botako.
[*ez du*]

Kasu hauek bitxiak dira oso: lehen kasuan, adjektiboari eransten zaiolako, eta, bigarrenik, partitiboa nekez izan daitekeelako subjektua:

Sorburu testua: KAL_2

I never said I was a hand surgeon

Itzulpena

***Kirurgialaririk** ez naiz!
[*Kirurgialaria*]

Sorburu testua: PBE

*I can't think of any woman
who wishes to be immortal, Randy.*

Itzulpena

*Ez dut uste **emakumerik**
hilezkorra izan nahi duenik, Randy.
[*Ez dut uste inongo emakumek*]

Deklinabidea

Kasu-atzizkiak gaizki erabiltzen dira askotan, ez baita aintzat hartzen hitzen forma gordina, hau da, izena bere horretan, hiztegieta agertzen den bezalaxe, eta, horren ondorioz, kasu-atzizki okerrak topatzen ditugu. Beste batzuetan –instrumentalaren kasuan, esaterako–, kasu-marka ez-estandarra (-*etaz*) erabiltzen da.

Sorburu-testua: SCD_1 <i>I'm honoured to have the immigration portfolio</i>	Itzulpena *Ohorea da inmigrazio-sailan egotea. [sailean]
Sorburu-testua: DAH_1 <i>and I saw you to go out to the dumpster and throw out a whole bunch of bad meat,</i>	Itzulpena Hondatutako haragi hori *zaborrara botatzen ikusi zintudan. [zaborrera]
Sorburu-testua: DAH_1 <i>We're gonna hang out, gonna watch a movie.</i>	Itzulpena *Gaua filma bat ikusten pasatuko dugu. [film bat]
Sorburu-testua: KAL_1 <i>Well, I'm definitely still learning a lot from Andrew, from you.</i>	Itzulpena Tira, oraindik asko ikasten ari naiz *Andrewtaz, zutaz. [Andrewrengandik]
Sorburu-testua: KAL_2 <i>Eyes on the guards?</i>	Itzulpena *Zer diozu zaintzaileetaz? [zaintzaileez]

Mugagabea

Beti komeni da izen-sintagma mugagabea eta mugatua ondo bereiztea, adierazi nahi duguna ondo uler dezaten azpidatzitako testuak irakurtzeko lana hartzen dutenek.

Sorburu-testua: SCD_2 <i>I got it in exchange for two beers.</i>	Itzulpena *Bi garagardoen truke lortu dut. [Bi garagardoren truke]
Sorburu-testua: SCD_2 <i>This case concerns an event that took place between two individuals.</i>	Itzulpena *Kasu hau bi pertsonen arteko gertaera batekin lotuta dago. [bi pertsonaren arteko]
Sorburu-testua: PBE <i>De Lancre executed 600 Basque witches</i>	Itzulpena *De Lancrek 600 sorgin euskaldunak exekutatu zituen [600 sorgin euskaldun]

Ahaleraren erabilera okerra

Ingeleseztan, ahalera erabiltzen da, besteak beste, zerbait adeitasunez eta era formal batean eskatzen denean. Euskaraz, geroaldia baliatu ohi dugu.

Sorburu-testua: SCD_1 <i>Or you could get me another drink.</i>	Itzulpena *Edo trago batera gonbidatu ahal didazu . [gonbidatuko nauzu]
Sorburu-testua: SCD_2 <i>Can you come home with me?</i>	Itzulpena Etxera etor zaitzake nirekin? [Etxera etorriko zara nirekin?]
Sorburu-testua: DAH_1 <i>Can I buy you a drink?</i>	Itzulpena Gonbida zaitzaketet? [Gonbidatzerik bai?]
Sorburu-testua: PBE <i>“Meet me there at say, 11:00 p.m. or so.”</i>	Itzulpena “Gauko 23:00etan han ikusiko dugu elkar”. [han ikusiko dugu elkar.]

«Elkar» izenordain elkarkaria

Egia da ahozko hizkeran eta, bereziki, lagunarteko hizkeran, askotan entzuten direla nor-nork aditz-sistemaren ordeztan nor sistemarekin osaturiko esaldiak. Halere, idatzizko euskara jasoan, nor-nork erregimeneko aditz-sintagma hobetsi behar da.

Sorburu-testua: KAL_1 <i>How long have you known this girl?</i>	Itzulpena *Noiztik ezagutzen zarete? [Noiztik ezagutzen duzue elkar?]
Sorburu-testua: KAL_2 <i>See you on the other side.</i>	Itzulpena *Bestaldean ikusiko gara . [ikusiko dugu elkar]

Egitura bihurkariak edo erreflexiboak

Honelako egituretan erabiltzen den aditza *du* erregistrokoa da. *Da* erregimeneko aditz-sistema erabiltzea ez da zuzena.

Sorburu testua: KAL_2 <i>But ask yourself, how do I know the things I do already know?</i>	Itzulpena *Galdetu zaitzete Nola dakizkidan jadanik dakizkidan gauzak. [galdetu zuen buruari]
Sorburu testua: KAL_2 <i>I ask myself the same thing every day.</i>	Itzulpena *Berdina galdetzen naiz egunero. [galdetzen diot nire buruari]

«Eta gero» egitura

Euskaltzaindiaren Hiztegiak dio *gero* partizipioaren ondotik erabili behar dela halako egituretan, ez izenaren ondotik. Hortaz, **biltzarra eta gero* egitura ez da zuzena. Egia da, halere, ahoz gero eta gehiago entzuten direla era horretako egiturak.

Sorburu-testua: SCD_1 <i>I broke it off two weeks ago, right after the party conference.</i>	Itzulpena Duela bi aste utzi nuen, *alderdiko biltzarra eta gero. [biltzarra izan eta gero]
Sorburu-testua: KAL_1 <i>After everything Judy's been doing for me,</i>	Itzulpena *Judyk nigatik egin duen guztia eta gero, [guztia egin eta gero]

«Ohi» partikula

Ezezko perpausetan, aditz-laguntzailearen edo aditz trinkoaren ezkerrean jartzen da *ohi*, hau da, *ez + ohi + aditz-laguntzailea/aditz trinkoa*. Orobat erabil daiteke aditz-laguntzailearen atzetik, hau da, aditzaren (aditza partizipio burutuan edota burutugabea) ondo-ondoan: *aditza + ohi + ez + aditz-laguntzailea* (adibidez, *sekula entzun ohi ez dena*). Azkenik, aditz-laguntzailearen atzetik ere erabili izan da (*ez zaie gertatu ohi*). Baina izen-sintagmaren ondoan eta aditzaren aurretik ez da erabiltzen:

Sorburu-testua: PBE <i>I don't get around to poetry much.</i>	Itzulpena *Ez dut poesia ohi irakurri. [Ez ohi dut poesia irakurri.]
Sorburu-testua: PBE <i>It's unlike me to be caught by surprise.</i>	Itzulpena *Ez naute ustekabea ohi harrapatu. [Ez naute ustekabea harrapatu ohi]

-(e)laren atzizki okerra izenak gobernaturiko perpaus osagarrietan

Izenek gobernatzan dituzten perpaus osagarrietan, -(e)lako edo -(e)n atzizkiak erabiltzen dira, eta ez *-(e)laren:

Sorburu-testua: PBE	Itzulpena
<i>I was inclining toward the theory that the fellow was simply rude.</i>	*Tipoa desatssegina zelaren teoria nuen buruan, [zelako teoria]
Sorburu-testua: PBE	Itzulpena
<i>The dead man's body has been most horribly mutilated.</i>	*Hildakoaren gorpua krudelki mutilatu dutelaren berri izaten duenean. [mutilatu duten berri]

Miszelanea

Atal honetan sartu ditut sailkatzen zailak diren beste fenomeno batzuk, hala nola itzulpen oke-rrak, egitura ulergaitzak, eta abar.

Sorburu-testua: SCD_2	Itzulpena
<i>after the Green Knight picks up his own severed head.</i>	*Zaldun Berdeak bere moztutako burua jasotzen duenean. [Zaldun Berdeak bere buru moztua jasotakoan.]
Sorburu-testua: KAL_1	Itzulpena
<i>Died as a child in 1970.</i>	*Umetaz hil zen 1970ean. [Umea zelarik hil zen 1970ean.]
Sorburu-testua: PBE	Itzulpena
<i>Second-year man from Kentucky by the name of Fry</i>	*Fry izeneko Kentuckyko bigarren urteko gizona. [Bigarren urteko gizon bat, Kentuckykoa, Fry izena duena.]
Sorburu-testua: WED_1	Itzulpena
<i>I write in my voice.</i>	*Nire hitzetik idazten dut. [Nire ahotsarekin idazten dut.]
Sorburu-testua: WED_2	Itzulpena
<i>I act as if I don't care if people dislike me.</i>	*Jendearen higuinak axola ez didan plantak egiten ditut. [Jendearentzat biguingarria banaiz ere, berdin-berdin jokatzten dut.]

Ondorioak

Euskarazko azpidazketa ezezaguna gertatuko zaio jende askori, orain dela gutxi arte oso jarduera bakana izan baita euskarazko itzulpengintzaren sistemaren barruan. Ikus-entzunezkoen lege berriari esker, ordea, VOD plataformak hasiak dira euskarazko azpidatziak eta, neurri apalagoan, bikoizketak ere eskaintzen. Plataforma horiei esker, baieztatu daiteke gaur egun euskarazko azpidazketak loraldi halako bat bizi duela. Hori dela eta, interesgarria begitandu zitzaidan plataforma horietako batean –Netflixen, hain zuzen– euskarazko azpidatzen osasun linguistikoa aztertzea. Plataforma horretako bezeroa edo kontsumitzailea naizen aldetik, filmen bat edo telesailen bat euskarazko azpidatziak aktibatuta ikusi izan dudanean, zapo mingots batekin bukatu dut gehienetan, irakurtzen nituen azpidatzen hizkuntza-kalitatea ez zelako nik espero bezalakoa. Horrek akuilatu ninduen Netflixek eskaintzen dituen euskarazko azpidatziak sakonago eta zabalago aztertzea, ea nire hasierako inpresioak inpresio bat besterik ez ziren ala inolako oinarririk ba ote zuten egiaztatzearen.

Euskararekin lan egiten dudanez, euskarazko eskaintzaren kantitatea bainoago kalitatea dut kezka bide. Azpidatzen hizkuntza-kalitatea aztertzerakoan ez naiz ibili euskara perfektu eta makulagabe baten bila, baina ispilu bat behar nuen azterketa linguistikoa egiteko. Ispilu hori euskara batua izan da, eta oroz gain hiztunen idatzizko erabilera landuak ezarritako arau eta konbentzioak. Eta, euskarazko azpidatziak ispilu horren aurrean paratu ditudanean, arau eta konbentzio gehienek herren egiten dutela ohartu naiz. Esango nuke gramatikaren erabateko kolapso baten aurrean gaudela, eta kolapso hori oso zabalduta dagoela aztertu ditudan testuetan. Bost itzultzailearen azpidazketa aztertu eta gero, ondorio gisa esan dezaket guztien azpidatziatan errepikatzen direla akats berak, sistematikoki errepikatu ere. Akats horiek euskararen oinarriko arauak bortxatzen dituzte, eta uste dut egoera honen berri eman beharra zegoela, konpontzeko mekanismoak abian jar ditzaten horretarako ahalmena edo gaitasuna dutenek. Arazoa sistemikoa da, bost itzultzaileak gaizki aritu baitira. Nabarmena da ez dela berrikusketarik egiten, eta egoera honek funtsezko bi galdera hauek botatzera narama: lehenik, nola esleitzen ditu Netflixek enkarguak?; eta, bigarrenik, ez dago inolako galbaherik itzulpena itzultzaile bati edo beste bati enkargatzeko orduan?

Lehenengo eta behin, itzulpen-prozesuaren katean itzultzailearen lana ikuskatuko duten zuzentzaileak beharrezkoak dira, baina beldur naiz Netflixen kasuan katebegi horrek herren egiten duela. Ondo dago euskarazko edukiak eskaintzea, baina eduki horien hizkuntza-kalitatea zaindu beharra dago, gero eta ikusle gehiagok goza dezan jatorrizko ikus-entzunezko produktuak euskarazko azpidatziekin ikusten.

Kalitatea ziurtatze aldera eta itzulpen-zerbitzu eta kalitate-arauari jarraikiz, beharrezkoa da itzulpen-prozesuaren emaitza itzultzailearenak ez diren beste begi batzuek berrikustea, emaitza albat bikainena izan dadin. Itzulpen-jarduera orok bi fase izan behar ditu: itzulpen-fasea eta berrikuspen-fasea. Itzulpen-faseak bakarrik ez du –egindako azterketak hori baieztatu dit behintzat– kalitatea bermatzen. VOD plataformetan euskararen presentzia areagotzea ondo

dago, baina presentzia horrek kalitatearen eskutik etorri behar du, bezerook kalitate-labela izango duten euskarazko azpidatziak ikustea eskatzen dugulako. Azken finean, kalitatea bermatzen ez bada, ikusleek ez dituzte euskarazko azpidatziak ikusiko, eta aukeran nahiago izango dute ingelesezko edo gaztelaniazko azpidatziak aktibatu.

Etorkizunari begira, interesgarria litzateke aztertzea itzultzaileek zer-nolako baldintzatan egin behar duten azpidazketa-lana, baldintza horiek, bereziki lana entregatzeko epe estuek eta ordainsari kaskarrek, badutelako eraginik amaierako emaitzan.

BIBLIOGRAFIA

- AGUSTÍN-LACRUZ, Carmen eta GÓMEZ-DÍAZ, Raquel (2021). «En el laberinto de las plataformas VOD: Un estudio comparativo de Netflix, Amazon Prime Video, HBO, Movistar+ Lite, Filmin y Disney+», *Cuadernos de Documentación Multimedia*, 32, e72919. <http://dx.doi.org/10.5209/cdmu.72113> (Kontsulta: 2023-03-6).
- BARLOVENTO COMUNICACIÓN (2022). «Análisis de la industria televisiva-audiovisual 2022», *Barlovento Comunicación*. https://barloventocomunicacion.es/wp-content/uploads/2023/01/Informe-anual-2022_Barlovento-Comunicacion.pdf (Kontsulta: 2023-02-22).
- BARAMBONES, Josu eta ZABALONDO, Beatriz (2006). *Ikus-entzunezko itzulpena*, Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- EUSKALTZAINDIA (2018). *Euskara batuaren eskuliburua*, Bilbo: Euskaltzaindia, 4. argitaraldia.
- EUSKARA INSTITUTUA, EHU, «Hizkuntza ergatiboa», *Sareko Euskal Gramatika (SEG)*, www.ehu.eus/seg (Kontsulta: 2023-03-10).
- KULTURA ETA KIROL MINISTERIOA (2022). «Encuesta de hábitos y prácticas culturales 2021-2022». <https://www.culturaydeporte.gob.es/dam/jcr:f2932131-e501-4da6-b5f4-6387044916cf/encuesta-de-habitos-y-practicas-culturales-2021-2022.pdf> (Kontsulta: 2023-03-02).
- 13/2022 LEGEA, uztailaren 7koa, Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzkoa. <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2022-11311> (Kontsulta: 2023-01-27).
- UEMA (2022). «Ikus-entzunezkoen kontsumoa udalerrri euskaldunetan». <https://www.uma.eus/wp-content/uploads/2022/09/IKUS-TXOSTENA-AZKENA.pdf> (Kontsulta: 2023-03-02).
- ZER NON IKUSI. <https://zernonikusi.eus/hasiera> (Kontsulta: 2023-01-22).

Resumen

Este artículo analiza la calidad lingüística de los subtítulos en euskera que ofrece la plataforma Netflix. Para ello, se han analizado nueve textos audiovisuales subtítulos por cinco traductores. Para realizar este examen, se ha procedido a clasificar los errores lingüísticos observados en todos los textos. El análisis nos muestra la existencia de un conjunto de errores que se repite en todos los textos. Por tanto, se puede afirmar que estamos ante un problema sistémico que nos lleva a preguntarnos cuál es el criterio que sigue Netflix a la hora de adjudicar los encargos de subtitulación. Finalmente, se concluye que para que mejore la calidad de la subtitulación en euskera es necesario que se implemente un control y una revisión de las traducciones.

Résumé

Dans le présent article on analyse la qualité linguistique des sous-titres basques proposés par la plateforme Netflix, à partir de neuf textes sous-titrés par cinq traducteur-riche-s. Pour mener à bien cette étude, nous avons procédé à l'identification et à la classification des erreurs linguistiques observées dans tous les textes. L'analyse nous montre l'existence d'un ensemble d'erreurs qui se répètent dans tous les textes. Nous pouvons donc avancer que nous sommes confrontés à un problème systémique, qui nous amène à nous demander quels sont les critères de Netflix pour l'attribution des commandes de sous-titrage. En conclusion, afin d'améliorer la qualité du sous-titrage en basque, il est nécessaire de mettre en œuvre un contrôle et une révision des traductions.

Abstract

This article examines the linguistic quality of the subtitles in Basque provided by the Netflix platform, analyzing nine audiovisual texts subtitled by five translators. For this purpose, the linguistic errors in all the texts were identified and classified. The analysis demonstrates that there are certain errors that recur in all the texts. Thus, we can reasonably infer that we are facing a systemic problem, which leads us to wonder what criteria Netflix follows when assigning subtitling commissions. We conclude that, in order to improve the quality of subtitles in Basque, it is essential to implement appropriate control and review of the translations.